



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

ERANSKINAK

1. Eranskina

Malgutasuna
Ekintza desberdinak proposatu klasifikazio eta taldekatze desberdinetan irizpide desberdinak jarraituz.
Zentzudunak diren sailkapen desberdinak onartu umeei proposatutako ekintzetan.
Kategori desberdinetako ekintzak proposatu errealitatearen deskribapenak egin ahal izateko.
Objektu bera erabiliz ekintza desberdinak proposatu.
Espreatzeko eta komunikatzeko bide desberdinak erabili.
Jariakortasuna
Galdera ugari helarazi gai baten inguruan
Ekintza, galdera, gai edo arazo irekiak eskaini erantzun ugari eta desberdinak jasotzeko.
Adibide eta egoera posible ugari eskaini, planteamendu desberdinen aurrean.
Erantzun desberdinak emateko gaitasuna balioztatu.
Originaltasuna
Sormena, amesteko gogoia, fantasia, zientzia fikzioa eta ezinezkoa landu ahal izateko jarduerak proposatu.
Ezagunak eta komunak ez diren gaiak landu.
Erantzun desberdinak emateko gaitasuna baloratu.
Positiboki hitz egin erantzun desberdinen inguruan.
Lanketa
Bukatutako lanak hobetzeko jarduerak proposatu.

Erantzun zehatza ez duten galderak proposatu.
Definitu ezin diren egoeren aurrean urduri jartzen diren haurrak lasaitu.
Bakoitzaren ezagutzak eta gustuak adierazteko ekintzak proposatu.
Errealitatearenganako sentiberatasuna
Errealitateari loturiko jarduerak proposatu.
Zentzumenekin lan egin: sentiberatasun sentSORIALA lantzeko jarduerak.
Arazoen alde positiboa bilatzea proposatu.
Errealitateari loturiko gaien inguruan alderdi positibo eta negatiboak bilatzeko aukera eskaini.
Komunikazioa
Lan taldean aritzeko jarduerak proposatu eta horretarako behar den materiala eskaini.
Lan taldeen bidelagun izan.
Komunikazioa lantzeko egoera desberdinak eskaini, binaka, hiruak...
Ume bakoitzak bere ideiak helarazteko aukera eskaini.
Enzentrazioa eta hobenezina
Umeak animatu lana ahalik eta hobetuen bukatzera.
Giro lasaia eskaini umeek beraien lana lasai eta prezio barik burutzeko.
Umeen interesen barruan dauden jarduerak proposatu.
Ikasitako berria aurretik ikasitakoarekin erlazionatu.

2. Eranskina

IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igon behar dogu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora Euskalerrria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrrikoak.

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta.
Hain ederra, hain polita da ta,
gora, gora Euskalerrria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrrikoak.

3. Eranskina

MENDIZALEEN ORKESTRA

1. JARDUERA
Liliren gutuna
DESKRIBAPENA
<p>Gelara Liliren gutun bat iritsi dela esango diegu hurrei. Gutuna gutun-azala, zigilu eta argazki batekin aurkeztuko dugu, sinesgarritasuna emateko jarduerari. Gutunaren helburua gaian modu gozoan murgiltzea izango da.</p>
<div style="border: 1px solid black; border-radius: 20px; padding: 20px; margin: 10px 0;"> <p style="text-align: center;">Kaixo lagunok!</p> <p>Argazkian ikusten duzuen bezalaxe, azkenean, zuen herritik gertu ibili naiz oraingoan. Durangaldeko mendikate eder hura bisitatu dut, ba al dakizue zenbat mendiz inguratuta zaudeten? Mendi ugari daukazue inguruan, batzuk harrizkoak, beste batzuk zuhaitzez inguratuta ... zoragarria izan da mendi horietatik ibiltzea! Gainera, mendian soinu liluragarriak entzuten nituen, haizeak, harriak eta urarekin batera animalia desberdinek ere sortutakoak!</p> <p>Etxera itzultzean, zuek ere gure basoak eta mendiak zein politak diren jakin behar duzuela pentsatu dut, baita bertan entzuten diren soinu desberdinez disfrutatzeko aukera izan behar duzuela! Beraz, animatu eta inguruaz disfrutatu! Sekretutxo bat kontatuko dizuet, menditik zehar ibili naizen bitartean, mendian bizi diren eta ezagutzen ez nituen pertsonak ikusi ditut eta badakizue zer abesten zuten??? Ikusi mendizaleak, baso eta zelaiak oso abesti polita da ikas ezazue zuek ere eta disfrutatu naturaz!</p> </div>


HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
Gaian murgiltzeko aukera egokia eta hurbila da. Kontuan izanik aurretik beste proiektu bat burutzen harituko direla, proiektu honi sarrera emateko heldu da gelara gutuna.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
Komunikatzen ikastea Elkarrekin bizitzen ikastea Pertsona gisa garatzen ikastea Egiten eta ekiten ikastea
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala <ul style="list-style-type: none"> - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna Ingurunearen ezaguera <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - Kultura eta bizitza gizartean Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Jarduera honetan sormena ez da era material batean landuko, ume bakoitzak bere baitan ideia desberdinak eraikitzeko aukera izango du. Eskutitza irakurtzen edo entzuten ari diren bitartean, ume bakoitzak bere baitan eskutitz horretan ageri denari irudi desberdinak sortzeko aukera izango du, baita mendietan entzuten diren soinu desberdinak interpretatzeko aukera.
AUKERA DIDAKTIKOAK
Materiala: gutuna eta argazkia. Espazioa: gela.

2. JARDUERA
Ipuina sortzen
DESKRIBAPENA
<p>Liliren eskutitza irakurri ostean, ume bakoitzak Durangaldeko edota beste mendien inguruko informazioa besteekin konpartitzeko aukera emango zaie. Aldi berean, mendien, basoen eta bertan entzuten diren soinuen inguruan zer dakiten eta zein jakinmin dituzten jakiten saiatuko gara. Aldi berean, mendian nor bizi daitekeen pentsatuko dugu denon artean.</p> <p>Galdera erantzun hauetan murgilduta gauden bitartean, Lili kontatutakoarekin eta dakigunarekin ipuin antzeztu bat egitea proposatuko zaie. Istorioa egunetik egunera eraikitzen joango gara, oinarri moduan “Ikusi mendizaleak” abestia izango dugularik.</p>
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
Jarduera honetan, umeek gaiaren inguruan zer dakiten eta ez dakiten ohartzeko aukera izango dugu. Baita, gaiaren inguruan duten jakin-mina eta interesa nondik norakoa den ezagutzen joango gara.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
<p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Natura ezagutzen hastea - Kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p>

<ul style="list-style-type: none"> - Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Ekintza honetan, ume bakoitzak bere jakinminak eta dakizkien gauzak besteei helarazteko aukera izateaz gain, ipuin antzerkia egiteko haur bakoitzak dituen ideiak taldean adierazteko aukera izango du. Hau da, ipuinean zein nolako protagonistak agertu daitezkeen, abestiari laguntzeko zein nolako soinu eta mugimenduak egin daitezkeen, istorioaren nondik norakoa etab
AUKERA DIDAKTIKOAK
Espazioa: gela.

3. JARDUERA
Argazki bilduma
DESKRIBAPENA
Jarduera honek familiaren parte hartzea sustatzea du helburu. Umeek etxera eramateko gutun bat idatziko dute, bertan, gelara mendi desberdinen argazkiak eraman behar dituela adieraziko dute, horrez gain, etxekoei ea zein mendi tontorretara iritsi diren galdetuko zaie. Senideren batek mendian izandako esperientzia umeei helarazi nahi badie, aukera eskainiko zaio gelara etortzeko beraien istorioa kontatzeko.
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
Ekintza honekin familiaren parte hartzea eta umeek egiten dutenaren inguruko interesa sustatzeaz gain. Etxean ere, haurrek gelan lantzen dutenaren inguruan hitz egiteko aukera egon dadila bultzatzen da. Honez gain, Lilik kontatutako istorioa soilik entzuteaz aparte, mendian eta basoan beste pertsona batzuek bizitako istorioak entzuteko aukera izango dute.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
Arduraz bizitzen ikastea

Ikasten eta pentsatzen ikastea Komunikatzen ikastea Elkarrekin bizitzen ikastea Pertsona gisa garatzen ikastea Egiten eta ekiten ikastea
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - Kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
<p>Kontuan izan behar dugu, bost urteko gelan haur batzuek idazten badakitela eta beste batzuk oraindik ez dakitela. Beraz, etxera eramateko eskutitza haur guztiek idatziko dute, baina hezitzaileak umeei idatzitako eskutitzaren atzealdean argitasunez idatziko du jaso beharreko mezua. Horrela, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuko dugu, inolako presiorik sortu gabe, badakigulako batzuk bokalak soilik identifikatuko dituztela eta beste batzuk letra guztiak desberdintzeko gai izango direla. Honez gain, haurrek etxean gelan lantzen ari garen munduan murgiltzeko aukera izango dute, hurrengo egunean ideia berriak gelakideei helaraziz.</p> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 10px; margin: 10px auto; width: fit-content;"> <p style="text-align: center;">Kaixo familia!</p> <p style="text-align: center;">Gelara mendien eta basoen argazkiak ekarri.</p> </div>
AUKERA DIDAKTIKOAK
Materiala: papera eta arkatza.

Espazioa: gela.

4. JARDUERA

Mendikatea ikustera

DESKRIBAPENA

Gelan etxetik ekarritako argazkiak behatuko ditugu eta ume bakoitzak aukera izango du etxean mendien inguruan azaldu zaiena esateko. Ondoren, mendiak argazkietan ikusi ondoren, oraingoan gure begiekin ikusteko momentua iritsi dela esango zaie. Beraz, euria egin ezker euritakoa eta txamarrak hartu eta eguzkia badago txapelak jarri eta Berrizko futbol zelaira txangoa egingo dugu, bertatik durangaldeko mendikatea ikusten baita.



Ibilalditxoa girotzeko gure abestia kantatzen joango gara. Bertan gaudelarik, umeei parez pare zein mendi dauzkaten azalduko zaie, horiek baitira Lilik aipatutako mendiak. Horrez gain, mendi bakoitzaren altuera eta Lilik esandakoa gogoraraziz, beraien ustez bertan nor bizi daitekeen galdetu ahal zaie.



Argazki kamerarekin ere argazkiak aterako ditugu, inprimatu eta gelan itsatsi ahal izateko. Horrez aparte, umeei inguratzen dien inguruko marrazkia egiteko aukera

izango dute bertan, margolari profesionalen paperean sartu eta parean daukatena orri batean margotuz.
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
Gelaz kanpo lan egiteko aukera aproposa delako, baita naturak eskaintzen digun irudiez gozatzeko. Era berean, haurrek herrian bertan dauden baliabide desberdinez ohartzeko aukera eskaintzen zaie.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - Kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Jarduera honetan sormena martxan jartzeko aukera desberdinak eskaintzen dira, alde

batetik, taldeari dagokionez, futbol zelaira joatean egiten den ibilalditxoan, abesten dauden bitartean kantua girotzeko aukera eskainiko zaie, bai txaloak eta mugimenduak nahi dituzten erara sortaraziz, erritmo askea eramanez. Bestalde, banaka ere, sormena garatzeko aukera izango dute beraien margolanak sortzen dituzten bitartean, errealitatea interpretatzeko askeak izango direlako.

AUKERA DIDAKTIKOAK

Materiala: margotzeko tresnak, argazki kamera, argazkiak.

Espazioa: ibilbidea bera, parkea.

5. JARDUERA

Mendiak sortzen

DESKRIBAPENA

Oraingoan gela, etxetik ekarritako eta guk ateratako argazkiez apainduta izateaz gain, beraien egindako margolanekin ere apainduko dugu. Hala ere, Berriztik ikusten den mendikatearen argazki handi bat izango dugu gelan, mendi bakoitzaren gainean dagokion izena eta neurria jarriz. Jarduera honetan, haurrak talde txikietan jartzeko eskatuko zaie eta behatutako mendiak sortzea proposatuko zaie.

Mendien maketak eraikiko behar dituzte, horretarako gelako materiala eta material birziklatua erabiliko dute. Talde bakoitzari mendi baten maketa egitea otuko zaio. Arte lan guztiak amaituta daudenean, talde bakoitzari bere mendiaren aurkezpena egitea eskatuko zaie, zein mendien tartean dagoen esanez eta bere itxuraren zenbait ezaugarri aipatuz, denek mendi desberdinen berri izateko.

HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Jarduera honetan, umeak elkarlanean aritzen ikasten duten bitartean, material desberdinari erabilpen desberdina ematen ikasten dute, beraien sormenetik abiatuz. Kontuan izan behar dugu, beraien sortutako materiala izango direla maketak eta ikusi duten mendiaren interpretazioa ere, berez beraien lana errespetatu beharra dago. Honekin batera, maketen aurkezpenak egiterakoan besteen aurrean protagonistak izanik hitz egiteko aukera eskaintzen zaie, baina kontuan izan behar dugu denek ez

dutela gustuko denen aurrean hitz egitea, beraz, hezitzailearen aldetik errespetatu beharrekoa izan beharko litzateke.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - Kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
<p>Mendiak sortzeko jarduera honen helburua, umeak beraien sormenean murgilduz mendien maketak sortzea da. Gelan aurkitzen den material desberdina erabiltzeko aukera izateaz gain, beraien esku egongo da material horren aukeraketa eta ematen zaion forma. Koloreztatzearen nondik norakoa ere askea izango da, beraiiek taldean</p>

eginiko proiektzioak direlako. Horretarako, taldekideei beraien ideiak helarazten ikasten joan beharko dira eta besteen iritzia eta nahiak pixkanaka errespetatzen.

AUKERA DIDAKTIKOAK

Materiala: gelako materiala eta material birziklatua.

Espazioa: gela.

6. JARDUERA

Ipuin antzeztua sortzen

DESKRIBAPENA

Ipuin antzerkia gelan egunero lantzen saiatuko garen ekintza bat da, umeek egunero ideia berriak emateko aukera izan dezaten. Baina, aurreko jarduerak burutu ostean, umeekin jarri eta ipuin antzeztua bideratzen hasteko momentua iritsi dela esango zaie. Kontuan izanik, Lilik idatzitako eskutitza, etxean kontatutakoa, argazkietan ikusitakoa, ibilaldian bizitakoa eta gure abestiak esaten diguna, denen artean antzeztu dezakegun istorio bat sortu behar dugu oraingoan. Horretarako zenbait galderen erantzunak erabili ahal ditugu:


- Nortzuk joaten dira mendira?
- Zer eramaten dugu bertara joateko?
- Jende asko bizi al da mendietan? Eta non?
- Zeintzuk dira hurbilen ditugun mendiak?
- Ze soinu klase entzun ahal ditugu mendietan?
- Zuhaitzak ba al daude mendietan? Eta animaliak? Zeintzuk?
- Mendira joaterakoan nola tratatu behar dugu?
- Pozik joan ezker abestu egiten ahal dugu?

Galdera honen erantzunak jaso egingo ditugu, gero beraiek esandako guztia gogoratu dezaten. Honekin batera, beraiek ipuina eraikitzen hasi beharko dira denen artean istorioa sortuz. Ondoren, bakoitzak bete nahi duen papera hartzeko aukera izango du, beti ere denen artean adostasun batera iritsiz.

HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

<p>Jarduera honen helburua, haurrek gaiaren inguruan ikasten joan direna eta duten interesaren berri izatea da. Horretarako, beraien jakintzez eta jakin-minez baliatuz istorio bat eraikitzeko aukera izango dugu. Orainarte eta ondoren egingo ditugun ekintzei lotura bat emanaz. Ondoren jarduera batzuetan, ipuin antzeztuan erabilgarriak izango diren materialak sortuko ditugulako. Antzezpen hau, egunerokotasunean lantzea aproposa izango litzateke, gaiari bukaera emateko garaian, ipuin antzeztua eskolako beste haur batzuen aurrean egin ahal izateko.</p>
<p>LANTZEN DIREN GAITASUNAK</p>
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
<p>ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK</p>
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hasia - kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza

SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Ekintza honetan umeen sormena lantzeko, ipuina bera umeek eraikitzea izango da. Hezitzailea bidelagun izango da, istorioren nondik norakoak zehazten laguntzeko eta aipatutako galderak egitean umeen interesak zeintzuk diren eta istorioaren ildoak zein den jakiteko aukera emateko. Umeei denen artean eraikitzen duten istorioa paperean hezitzaileak idatzi beharko du. Beraz, ipuin antzeztuak umeei sortutako istorioa islatuko du.
AUKERA DIDAKTIKOAK
Materiala: umeen erantzunak jasotzea, istorioa idazten joatea. Espazioa: gela.

7. JARDUERA
Errekondotik ibilalditxo
DESKRIBAPENA
Ekintza honetan Berrizen dagoen erreka inguruko bidegorritik txangoa egingo dugu, bitartean makilak, hostoak eta harriak jasoko ditugu gelara eramateko. Batutakoaren gain etxetik ere harriak ekartzea eskatuko zaie. Materiala ondo zaindu behar dugula azalduko zaie, gerora material horrekin antzezpena girotu ahal izango dugulako.

HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

<p>Txango honekin bi helburu betetzen ditugu, alde batetik umeek beraien ingurua hobeto ezagutzen duten bitartean berauez disfrutatzeko aukera izatea. Eta bestetik, ibilaldian jasotako elementuekin eskulan desberdinak burutu ahal izango ditugula gelan.</p>
<p>LANTZEN DIREN GAITASUNAK</p>
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
<p>ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK</p>
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
<p>SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK</p>

Ekintza honetan, ibilaldia burutzen ari garen bitartean inguratuta dauden tokian askatasunean eta era pertsonalean baso horietan gerta daitekeena pentsatzeko aukera eskainiko zaie. Horrez gain jasotzen dituzten materialen aukeraketa ere beraien gustuen araberakoa izango da.



AUKERA DIDAKTIKOAK

Materiala: makilak, hostoak, harriak.

Espazioa: kalera irten eta erreka ondoko bidegorria.

8. JARDUERA

Hostoak lehortzen

DESKRIBAPENA

Ibilaldian jasotako hostoak lehortzen jartzeko proposamena egingo zaie hurrei. Horretarako, beraien nola egingo zuten galdetuko zaie. Beraien eginiko ekarpenak jasoko ditugu eta talde handian gure proposamena egingo dugu. Egunkariko orrien artean sartuko ditugu hostoak, eta egun batzuetan lehortzen utziko ditugu. Gainean pisua jarri ezker, liburu pisutsu batzuk, esate baterako, leun-leun geldituko dira. Aldaketa nabarmena izango da, eta hortaz hitz egiteko aukera emango digu: bizirik daudenean koloretsu, "hildakoan" zimel, bizitzaren zikloa bera bezala. Hostoak behin lehortuta daudenean, bakoitzak nahi dituen moduan koloreztatuko ditu eta horrekin batera hostoak lehortzeko prozeduran emandako pausuak idatzi egingo ditugu etxekoei nola egiten den azaldu ahal izateko. Loreekin ere prozedura berdina egiten dela gogoraraziz.

HOSTOAK NOLA LEHORTUHASIERAN: *HOSTOAK BILDU.*ONDOREN: *PAPER GAINEAN JARRI.*SEGIDAN: *PISUAREKIN ZAPALDU.*BUKAERAN: *PISUA KENDU.***HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA**

Jarduera burutzearen zergatia, helburu batetik ekintza desberdinak sortu daitezkeela ohartzea da. Hau da, ibilaldian jasotako hostoekin, alde batetik lehortzeko prozesua nolakoa den aztertzen dugulako eta horretan gabiltzala umeei beraien ekarpenak egiteko aukera dutelako. Eta bestetik, etxekeekin egin ahal den ekintza bihurtzen delako, prozesua idatziz etxera eramatean.

LANTZEN DIREN GAITASUNAK

Arduraz bizitzen ikastea

Ikasten eta pentsatzen ikastea

Komunikatzen ikastea

Elkarrekin bizitzen ikastea

Pertsona gisa garatzen ikastea

Egiten eta ekiten ikastea

ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK


Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala

- Gorputza eta norberaren irudia
- Jolasa eta mugimendua
- Jarduera eta egunerokotasuna

Ingurunearen ezaguera

- Elementuak, harremanak eta neurria
- Natura ezagutzen hastea
- kultura eta bizitza gizartean

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena <ul style="list-style-type: none"> - Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak - Arte hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Ekintza honetan hurrek hostoak era askean margotuko dituzte, beraiek erabakiko dute zein nolako materialarekin (margoak, tenperak, argizariekin, errotulkiak). Horrez gain, etxera idatzita eramango duten prozeduraren azalpenak idazterakoan ere, hezitzailea bidelagun izango dute idazterakoan, baina ez zaie umeei behartuko idazkera aldetik, heldu ez diren maila batean idaztera.
AUKERA DIDAKTIKOAK
Materiala: hostoak, papera, arkatza, margoak, tenperak, argizariak, errotulkiak. Espazioa: gela.

9. JARDUERA
Bateria sortzen
DESKRIBAPENA
Egindako txangoa gogoratzuz birziklapenaren gaia landuko dugu, gure ingurua garbi mantentzearen garrantzia gogoratzuz birziklapenerako ekintza berezi bat burutuz. Horretarako etxekoen laguntza beharrezkoa izango da, material desberdinez eginiko botilak gelara ekartzea eskatuko zaielako (plastiko, kartoi, metal, beira). Honekin, material bakoitza zein koloretako zakarrontzira bota behar den landuko dugu, erabiliko ditugun botila bakoitzaren behealdean dagokion zakarrontziaren koloretako gometxa itsatsiko dugulako.


<p>Ondoren, botilak apainduko ditugu eta ontzi batzuetan elementu desberdinak sartzeko aukera izango dute (ura, garbantzuek, area ...) beraiek nahi dituzten soinuak lortu ahal izateko. Umeei nahi izanez gero, ipuinean ageri daitezkeen doinuak sortzea proposatuko zaie, antzezlanean erabilgarriak izateko. Honekin guztiarekin batera praktiko bat sortzea lortuko dugu, botilak sokekin lotuz.</p>
<p>HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA</p>
<p>Bateria sortzearekin batera, birziklapenaren gaia ere lantzeko aukera ematen digu era erraz batean. Era berean, etxean erabilgarritasuna ez duten botilei erabilpen barri bat ematen zaie eta garrantzitsuena dena umeei soinu desberdinak arakatzeko gozatu egiten dute.</p>
<p>LANTZEN DIREN GAITASUNAK</p>
<p>Arduraz bizitzen ikastea Ikasten eta pentsatzen ikastea Komunikatzen ikastea Elkarrekin bizitzen ikastea Pertsona gisa garatzen ikastea Egiten eta ekiten ikastea</p>
<p>ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK</p>
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren

<p>teknologiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
<p>Ekintza honetan, hurrek beraien botilak nahi dituzten moduan apaintzeaz gain askatasun osoa daukate beraien ontziak elementu desberdinekin betetzeko, hau da, soinu desberdinak arakatzen doazen heinean gustuko daukatena aukeratuko dute, hutsik uzteak ere soinua sortarazten duela ohartuz.</p>
AUKERA DIDAKTIKOAK
<p>Materiala: botilak, gometxak, botilak betetzeko material desberdinak (txitxirioak, arroza, harriak, area, ura..), botilak apaintzeko materiala (margoak, errotulkiak, tenperak, argizariak), soka.</p> <p>Espazioa: gelan baina eguraldi ona eginez gero kalean burutu daiteke jarduera hau.</p>

10. JARDUERA
Baketak apaintzen
DESKRIBAPENA
<p>Ibilaldian jasotako makilei erabilpena emateko sasoia iritsi da, sortutako bateria jotzeko eskuak erabiltzeaz gain baketa zoragarriak sortu ahal ditugu. Ume bakoitzari bi makila aukeratzeko proposatu eta hauek beraien gustuen arabera apaintzeko aukera eskainiko zaie.</p>
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
<p>Sortutako bateria eskuekin jotzeaz gain makilekin jotzerakoan soinu aldaketa ematen dela ohartu daitezke baketa hauek erabiltzerakoan. Horrez gain, ikusi mendizaleak abestiarekin erritmoa eramaterakoan material desberdinak erabili ahal izango dituzte, bateria eskuekin joz, baketekin eta baketak bata bestearekin kolpatuz ere. Beraz, ahalik eta baliabide gehiago eskaintzea du helburu jarduera honek.</p>
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
Arduraz bizitzen ikastea

Ikasten eta pentsatzen ikastea
Komunikatzen ikastea
Elkarrekin bizitzen ikastea
Pertsona gisa garatzen ikastea
Egiten eta ekiten ikastea
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
<p>Jarduera honetan baketak era askean apaintzeko aukera emango zaie, baita baketak elementu desberdinekin kolpatzean sortzen dituzten soinuak arakatzeko. Aldi berean, ume bakoitzak kantuari erritmo propioa jartzeko aukera izango du, beraiek abestuz eta erritmoa eramanez.</p>
AUKERA DIDAKTIKOAK
<p>Materiala: makilak, apaintzeko materiala (margoak, errotulkiak, tenperak, argizariak)</p> <p>Espazioa: gelan baina eguraldi ona eginez gero kalean burutu daiteke jarduera hau.</p>

11. JARDUERA
Bitxi-harriak
DESKRIBAPENA
<p>Errekondotik egindako txangoan jasotako harriak, musika sortzen duten bitxietan sortzea dugu helburu. Horretarako, lehenik eta behin harriak tenperekin edo argizariekin margotuko ditugu. Ondoren, bakoitzaren gustuen arabera, tamainaka koloreka edo nahi duten ordenan kartoi baten gainean itsatsiko dituzte beraien harriak. Hala ere, pare bat harri itsatsi gabe usteko proposatuko zaie, konprobatu ahalko duten bezalaxe harriak bata bestearekin kolpatzerakoan soinuak sortzen dituztelako. Horrez gain, itsatsi dituzten harriei soinua atera ahal izateko etxetik metalezko koilara bat ekartzeko eskatuko zaie. Horrela, aukera izango dutelako harriak baketekin, koilarekin eta baita harriekin ere kolpatzeko, soinu desberdinak sortuz.</p> <p>Jarduera honekin, antzeztuko dugun lana girotzeko beste material berri bat lortzen dugu.</p>
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
<p>Harriekin ere soinu desberdinak sortu daitezkeela ohartzea, horrez gain, ume bakoitzak bere harriak nahi dituen moduan apaintzeko aukera eskainiz itsasteko ere oinarri desberdinak jarraitu ahal direla ohartzea.</p>
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua

<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - kultura eta bizitza gizartean <p>Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea - Arte hizkuntza - Gorputz hizkuntza
SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK
Jarduera honetan sormena lantzeko aukerak ondorengoak dira, alde batetik umeek era autonomo baten lortzen dutela harrien soinuez ohartzea, arakatzen duten bitartean. Eta bestalde, harriak kartoian itsasterakoan eta margotzerakoan nahi duten era sortzailean egiteko proposatzen zaielako.
AUKERA DIDAKTIKOAK
Materiala: harriak, tenperak, argizariak, metalezko koilarak, baketak, kartoia, kola. Espazioa: gelan baina eguraldi ona eginez gero kalean burutu daiteke jarduera hau.

12. JARDUERA
Ipuin antzeztua
DESKRIBAPENA
Lan proiektu honi bukaera emateko garaia iritsi da eta gelakide guztien artean sortutako ipuin antzeztuarekin emango zaio bukaera. Antzezlanean, lan proiektuan murgilduta egon garen bitartean sortutako tresna desberdinak erabiliko dugu berau girotzeko. Adibidez: ipuinean baten bat ibiltzen badoa, pausuen soinuk lortzeko harriak kolpatu ahal ditugu; mendian haize ugari dagoela antzemateko putz egiteaz gain, batutako hostoak igurtzi ahal ditugu; bat-batean trumoia eta txingorra hasi dela adierazteko gure bateria erabili ahal izango dugu ... Hau guztia, umeen sormenaren

<p>araberakoa izango da, beraiek baitira antzezen honen protagonista eta sortzaileak. Antzezena, ikusi mendizaleak abestiarekin bukatzeko proposamena egingo zaie, lan proiektu honetan ia egunero landu dugun abestia izango da eta honezkero beratu girotzeko aukera desberdinak badaudela ohartuko dira. Egunetik egunera, elementu desberdinekin (baketekin; bateria baketekin eta eskuekin joz; harriak beraien artean kolpatuz; harriak koilarekin kolpatuz; gorputzarekin: txaloak emanez, pausuekin, saltoekin), hau da, gelan sortutako eta beraiengandik irten denarekin erritmo askeak eramateko aukera izan dute, denen artean erritmo mota desberdinak sortuz. Beraz, gelan sortu duten ipuin antzeztua alboko gelakoei aurkezteko unera iritsi zaie.</p>
<p>HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA</p>
<p>Lan proiektu osoa batzen duen jarduera proposa da, alde batetik beraiek ere egin dituzten jarduerari lotura bat eta emateko eta bestetik beraiek ere sortzeko gaitasuna dutela ohartzeko.</p>
<p>LANTZEN DIREN GAITASUNAK</p>
<p>Arduraz bizitzen ikastea</p> <p>Ikasten eta pentsatzen ikastea</p> <p>Komunikatzen ikastea</p> <p>Elkarrekin bizitzen ikastea</p> <p>Pertsona gisa garatzen ikastea</p> <p>Egiten eta ekiten ikastea</p>
<p>ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK</p>
<p>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza eta norberaren irudia - Jolasa eta mugimendua - Jarduera eta egunerokotasuna - Norberaren zaintza eta osasuna <p>Ingurunearen ezaguera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementuak, harremanak eta neurria - Natura ezagutzen hastea - kultura eta bizitza gizartean

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

- Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea
- Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
- Arte hizkuntza
- Gorputz hizkuntza

SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK

Jarduera honetan, zeharka bada ere, lan proiektu guztian zehar lan egiten da eta umeak dira lan antzeztuaren sortzaileak. Bere nahietatik eta ikasteko gogoetatik sortuko da ipuina, baita pertsonaiak banatzearen lana. Horrez gain, abestia lantzen den bitartean aukera izango dute erritmo askeak eramateko eta besteei adierazteko.

AUKERA DIDAKTIKOAK

Materiala: lan proiektuan sortutako tresnak.

Espazioa: gela edo eskolako aretoa.